



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2019ko maiatzaren 13tik 17rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: BPGd



Datuaren analisia

urtarrila eta martxoa bitartean, BPGd-ak % 0,4 egin zuen gora Eurogunean, espero zen moduan, gitarrautako bigarren aurreikuspenaren arabera. 2018ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, BPGd-ak % 1,2 egin zuen gora. Espainiako BPGd-a, bestalde, % 0,7 hazi zen urtarrila eta martxoan bitartean, Europako batez bestekotik eta 2018ko azken laurdenean erregistratutako % 0,6tik gora. hazkunde-tasarik ahulenak honako herrialde hauetan eman ziren: Italian (% 0,2 soilik igo bazen ere, 2018ko amaieran hasi zen atzeraldi teknikit ateratzea lortu zuen), Belgika (% 0,2), Frantzia, animarka eta Austria (denak % 0,3). Iaz ez atzera ez aurrera geratu zen Alemaniako ekonomia % 4 igo zen.

Adierazlearen azalpena

urteko produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen zerbitzu edo ondasunen batuketaren eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, eta enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: ZEW ALEMANA



Datuaren analisia


emaniako inbertsiogileen konfiantza neurtzen duen ZEW indizea eremu negatibora itzuli zen berriro maiatzean, 3,1etik -2,1era jaitsi baitzen. Maila positiboan mantenduko zela zioen lostasunezko aurreikuspena (5,0) baino okerragoa izan zen. Espektatibek eragin zuten berakada hori, oraingo egoera neurtzen duen osagaiak hobera egin baitzuen, 5,5etik 8,2ra, aurreikuspenek igoera apur bat apalagoa espero bazuten ere (6,3).

Adierazlearen azalpena

emaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko oeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomikoa" islatzeko balio du. lero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten tuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz idetzen zaie adituei.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Automobilaren eta makinaren ekoizpena apaldu zenez, Estatu Batuetako lantegien ekoizpenak itekabean behera egin zuen apirilean. Industria-ekoizpen orokorra, zerbitzu publikoak eta eataritza barne hartzen dituena, % 0,5 jaitsi zen apirilean (bere horretan mantentzea espero zuten ere). Azken hiletan, inbentarioak hazi egin dira, muga-sarien azken igoerak indarrean sartu irretik. Automobilaren sektorearen gehiegizko inbentario horrek ondorio kaltegarriak ditu ekoizpenean.


Manufakturen ekoizpenak % 0,5 egin zuen behera iragan hilean, azken lau hiletan izan duen erugarren beherakada. Manufakturen sektorearen ahalmenaren erabilera, enpresek haien alibideak nola erabiltzen ari diren esaten duen neurria, iragan hilean % 75,7ra jaitsi zen, martxoko 76,2tik.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den presa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia ten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MICHIGANEKO KONFIANTZA



Datuaren analisia


aiatzean, Michiganeko Unibertsitateak prestatzen duen kontsumitzaileen konfiantza-indizea 102,4tik 102,4ra igo da, espero zen 97,2tik oso gora. Azken 15 urteotako daturik altuena da. Esperetatibek kasuan, 87,4tik 96ra igo da, espero zen 86,8rainoko jaitsiera baino askoz hobeto. Kontsumitzailearen baldintzetan ia ez dago aldaketarik, lehengo 112,3aren ondoren, 112,4 baitaukagu orain.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzaileen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzaileen konfiantza neurtzen duen indize ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera aztertzen eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako ikerketan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzaileen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa adierazten du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

APIRILEAN: INDUSTRIA-EKOIZPENA ETA XEHEKAKO



Datuaren analisia

apirilean, **industria-ekoizpenak** urte arteko % 5,4 egin zuen gora; aurreko hileko urte arteko % 5,5arekin alderatuta, erritmoa nabarmen moteldu dela ikus daiteke. Urteko lehenengo bi hiletan mandako hazkundeekin lotuago dago kopuru hori (industria-ekoizpenak urte arteko % 5,3 egin zuen gora hala urtarrilean nola otsailean), baina analisten aurreikuspenen oso azpitik, hilabete onetarako urte arteko % 6,5eko hazkundera aurreikusten baitzuten. Kontsumoko ondasunen **xehekako salmenten** datua ere argitaratu da. Apirilean, urte arteko % 7,2 egin zuten gora, eta, hartxoan emandako % 8,7ko hazkunderarekin alderatuta, moteltzea nabarmena da. Gainera, indize onek 2003ko maiatzetik izan duen hazkunderik ahulena izan da.

Adierazlearen azalpena

industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den prezio multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia osoaren ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisia egiteko. **xehekako salmenten adierazleak** xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegiaren arrakasta azaltzen ditu.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
05/20	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% -0.1
05/20	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
05/20	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
05/21	Espainia	Balantza komertziala	--
05/21	Eurogunea	ELGEk perspektiba ekonomikoak argitaratu zituen	0
05/21	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-7.6
05/21	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.34m
05/22	Japonia	Balantza komertziala	229.5b ¥
05/22	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.2
05/22	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
05/23	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
05/23	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0.4
05/23	Frantzia	Enpresen konfiantza	105
05/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	50.2
05/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	52.0
05/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	51.8
05/23	Alemania	IFO enpresen egoera	99.2
05/23	Alemania	IFO aukerak	95.3
05/23	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	103.6
05/23	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
05/23	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
05/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% -2.2
05/23	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
05/24	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.9
05/24	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% -2.0

JRTSA:

naitza mistoak errenta aldakorreen, igoerekin Europan eta tsierekin gainerako burtsa nagusietan. Aste honetan, oraindik presen emaitzak argitaratzen ziren bitartean, inbertsiogileek eta berezia jarri diete mekataritza-arloko nobedadeei. Neurri alagoan bada ere, Brexitak eta Italiako ezegonkortasun litikoak ere eragina izan dute Europako indizeen bilakaeran. Bero zen moduan, Txinako gobernuak AEBetako muga-sariei antzun zien, eta ekainaren 1etik aurrera, Estatu Batuetatik portatutako ondasunei 60.000 milioi dolarreko zergak ezarriko zkiela iragarri zuen. Bestalde, AEBek betoa jarri diote Huawei presari, eta, gobernu amerikarraren baimenik gabe, Estatu Batuetako osagaiak eta teknologia erosteko debekua ezarri dio. Hala ere, Trumpek tentsioa pixka bat arindu zuen, gatazka mertzialaren konponketaren aurrean baikorra dela adierazi enean; gainera, datorren hilean, Japoniako G20aren goieran, Txinako presidentearekin bilduko dela iragarri zuen. Hala ere, Txinako iturri ofizialen arabera, herrialde horrek ez du uka AEBekin negoziatzen segitzeko asmorik. Bestetik, Estatu Batuetako gobernuak sei hilabetez atzeratu zuen EB eta Japonia eratupean zituen ibilgailuen inportazioaren gaineko % erainoko muga-sarien hazkundera, eta Europak kotizazio sitiboekin erantzun zuen. Enpresen emaitzei begiratuta, ia guk argitaratu direla esan daiteke, eta aurreikuspenak gainditu dela, hala Europan nola AEBetan (BParen % 2 eta % 6ko hazkundera, hurrenez hurren).

ERRENTA FINKOAK:

merkatuetan ezkutuan dirauten zalantzen ondorioz, zor publikoarekiko gosea ez da desagertu. Bund-ak % 0,10ekin itxien, 2016ko marka historikotik oso hurbil. Periferikoaren kasuan, Italiako zor publikoan birstortu diren tentsioak nabarmendu behar dira. Alpeez bestaldeko gobernu-koalizioaren barruan dauden adostasun gero eta handiagoen eta Bruselari defizitarekin eronka jotzeko mehatxuaren ondorioz, arrisku-prima 290 punturaino igo zen, azken hiru hiletako maximoa, hain ere, azkenean, 276 op-ra jaitsi zen. Gainerako periferikoekin egin zieten tentsio horiei. Espainian, 10 urterakoak % 0,88an jaitsi zuen astea, minimo historiko berria, 2016ko urrian registratutako balioetatik behera. Europan kredituak hobera joan zuten, eta diferentzialak murriztu ziren.

BISAK / LEHENGAIK:

erakoak balio apur bat galdu du dolarraren eta yenaren aurrean. Beraren ahultasuna nabarmendu behar da, 2000. urtetik aurrera izan duen jaitsieraren errenkada luzeenarekin. Hain zuzen, ateratzeko adostasuna lortzeko gobernu antzerbadorearen eta oposizio laboralistaren arteko goizazioak etenda daudela baieztatu zen. Tramitea gaindituko bada ere, Brexitaren plana berriro bozkatuko da parlamentuan, eta horrek zalantza betetako epealdi berri bati hasiera jarango dio. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioa igo zen, Saudi Arabiako bi ponpatze-estazioen aurkako asoaren ondoren, Ekialde Ertaineko tentsioak gora egin zituen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2019
MSCI WORLD (Local)	1.626,91	-0,16	12,87
IBEX 35	9.280,10	1,78	8,67
DJ EURO STOXX 50	3.425,64	1,92	14,13
DJ STOXX 50	3.138,79	1,94	13,72
FTSE	7.348,62	2,02	9,22
S&P 500	2.859,53	-0,76	14,07
Dow Jones	25.764,00	-0,69	10,44
NASDAQ	7.816,29	-1,27	17,80
NIKKEI 225	21.250,09	-0,44	6,17
MSCI GORAKORRAK (Lo)	55.839,62	-2,92	4,53
MEXBOL	43.445,62	0,15	4,34
BOVESPA	89.992,73	-4,52	2,40
SHANGHAI	3.018,68	-1,94	15,60
Errusia Rts Mosku	1.254,68	3,37	17,40

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,65	-0,03	-0,04
ESPAINIA 2 URTE	-0,35	-0,01	-0,11
AEB 2 URTE	2,20	-0,07	-0,29
ALEMANIA 10 URTE	-0,10	-0,06	-0,35
ESPAINIA 10 URTE	0,88	-0,10	-0,54
AEB 10 URTE	2,39	-0,08	-0,29
ALEMANIA 30 URTE	0,54	-0,07	-0,34
ESPAINIA 30 URTE	2,05	-0,11	-0,56
AEB 30 URTE	2,83	-0,06	-0,19

Kreditu-spreada (op)

MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	65,02	-1,22	-23,35
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	278,35	-2,72	-75,34

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
Dolarra / Euroa	1,12	-0,65	-2,51
Yena / Euroa	122,75	-0,41	-2,28
Libera / Euroa	0,88	1,67	-2,39

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	73,26	2,32	37,78
Urrea	1.277,55	-0,66	-0,38



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.